

Jakin zuela bere ahots propioa lantzen. Zehaztasun handiak eta kondentsatzeko gaitasunak ezau-garritu zuen ahots hori, baita erritmoarekin zein azentuarekin egin zituen espermentazioak eta korronte imaginariarekin izan zuen loturak ere; maiz, animaliei begiratuz gizakia ulertzeko.

Elaine Showalter kritikariaren esanetan, halaber, Moorrek aurre egin zien Gertrude Steinek «poesia patriarkala» izendatu zuenaren «konbentzionalismo lingüistiko, sintaktiko eta tematikoei». Izan ere, kritika feministak nabarmendu izan du Moorek eta modernismoaren aldi historikoan bat egin zuten beste zenbait emakumezko idazleek elkarren arteko ehuntze esanguratsua izan zutela –Norre, Bishop, H. D eta

Bere lehen poemetatik hasi zen animaliekiko, naturarekiko eta idazketarekiko pasioa ahal beste uztartzen

Modernismoaren berrikuntzetan ekarpen nabaria egin zuen sasoiako emakume idazleen ehuntzeak

Bryherren arteko gutunak dira horren erakusle-, bakoitzaren bide literarioetan sakon eragin zuena. Modernismoak ekarri zituen berrikuntzetan haien ekarpena nabaria izan zen, eta euren bizitzetan egin zituzten egiturazko aldaketak adina saiatu ziren literatura ere eraldatzen. Hala azaltzen du Mooren obran aditu Eulalia Cecilia Piño irakasleak: «Idazle hauek taxutzen ari ziren abangoardiako une hori ez zen propaganda feminista modura zertu, euren bizipenetan esperimentatzen ari ziren aldaketa erradikalen isla literario bezala baizik». Zaletasun arteetik, naturaz harago, boxeoan zein beisbolan maite zituen Moorek, baita hiru adardun kapelarekin ibiltzea ere.

Poesia ez ezik, literatur kritika –*Predilections: Literary Essays* (1955), *Idiosyncrasy and Technique* (1959), *Poetry and Criticism* (1965)– eta itzulpena ere landu zituen, eta literaturaz eta arteaz ziharduen *The Dial* aldizkaria ere zuzendu zuen 1925etik 1929ra bitartean, sasoiako pentsamendu aurrerakoienetakoa eta oihartzun handiko autoreak publikatu zituen; Thomas Mann, Pablo Picasso eta Jose Ortega y Gasset, tartean.

Buruko isuri baten ondotik, 1972ko otsailan hil zen Moore, Brooklyngo bere apartamentuan.

Azken arrasto bat, Watson

Irati Majuelo

Mundu osoan dira ezagunak Sherlock Holmesen ibilerak, hilketa korapilatsuak eta gertakari misteriosuak argitzen maisu, bere lagun leial Watsonek lagunduta beti. Arthur Conan Doylek sortutako pertsonaia xelebreak arrakasta berehalakoa lortu zuen XIX. mende amaieran, baina bere gorabeherak zaletasun handia pizten dute oraindik ere irakurleengan, inteligentzia handiz jositako istorioak direla erakutsiz. Londres industrialaren argi-ilunak zeharkatzen ditu Holmesek, gaizkile maltzur eta itsusien atzetik, metodo deduktiboa eta logika ardatz, poli-ziaien ezgaitasunei irtenbidea aurkitu asmoz.

Sherlock Holmesen memoriak, beraz, literaturaren historiako saga ezagunenetakoa baten

parte da, jatorrian *The Strand Magazine*-n atalka argitaratua. Hamabi kontakizunek osatzen dute, nahiz eta lehendabiziko edizioetan *Kartoizko kutxa* bildumatik kanpo utzi zuten, izan adulteriozko harremanak agertzen dituelako edota bortizkeria handiko kasua zelako. Zergatia ez



‘Sherlock Holmesen memoriak’

Idazlea: Arthur Conan Doyle. **Itzultzailea:** Aitor Blanco Leoz. **Argitaletxea:** Igela.

dago argi, baina gerora argitaraturiko edizio ugarietan jaso da, euskarazko honetan nola. Eta eskerrak, *Aurpegi horia*-rekin baitan, istorio interesgarrienetako bat baita, emozioari azkenerarte eusten diona.

Arthur Conan Doylek ezagunak nagusia ipuinen formari dagokiona da, izan ere, gehien-gehienek formula bera errepikatzen dute: lehendabizi biktimaren eskutik iristen da kasua Holmesen eskuetara, eta haren gertakizunen bertsioa plazaratzen. Ikerketa eta miaketa dator ondoren, prozesuan zehar Holmesek berretzat gordetzen dituelarik aztarna eta zantzu gehienak, irakurlearen egonarrria proban jarritz. Amaieran, detektibearen ahosketak jakiten dituzte gainerako pertsonaiek, bai eta irakurleak berak, jazoeraren nondik norra-koak, eta gaizkilearen arrazoiak eta jokaerak argi geratzen dira. Hori dela eta, ipuinaren barnean istorio bat baino gehiago garatzen da, eta kontaketa estloak garrantzi handia hartzen du.

Hala ere, bilduma honetan, interresgarria da, batetik, jadanik Sherlock zenbait liburu idatzi-

rik izanik, idazleak aukera daukala aurreko abenturekin jolasteko, eta hala erreferentzia egiten die detektibearen aurreko ibilerei, denboran zehar garatuz doan pertsonaia dela erakutsiz. Beste-tik, ipuinero agertzen du Sherlock-ken ezagunak berrirten bat, jadanik egonkortua dagoen bere irudia (famatu, hutsik gabekoa, serioa, hotza) aberastuz: urduri agertzen da, depresioa du, txakalaldiak... Horrez gain, bere lehendabiziko kasua aitortzeak edota amatu ez zuen misterio bat onartzeak pertsonaia are gehiago humanizatzen dute.

Baina liburu hau zerbaitengatik ezaguna bada, idazleak Sherlock Holmes hil zuelako da. Bildumako azken kontakizunak azaltzen du nola heltzen den bere amaiera Europako gaizkilerik handienaren atzetik dabilena. Alabaina, garraiko irakurleek ezin izan zuten jasan euren pertsonaia gogokoenaren heriotza, eta Arthur Conan Doylek eskatu (are indarrez exijitu!) zitoten berpiztu zezan, eta hala egin zuen *The Return of Sherlock Holmes* lanean. Ea laister irakur dezakegun euskaraz Sherlock Holmesen itzulera...

Nortasun dudak euskal ipuinetan

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Tapa biguneko narrazio liburua da, tamaina estandarrekoa (20x15 cm) eta 32 orrialdekoa.

Ipuin modernoa da, irakurleari erakusten diona protagonistak nola kudeatzen dituen nortasun zalantzak. Azken bolada luzean euskal idazleek hartu duten narrazio molde dena, bestalde: ipuinen betiko egitura erakita (aurkezpena-korapiloa-askatzea), lehenik, pertsonaiaren hurbileko erretratua erakusten da, gorabehera psikologikoaren jatorria zirriborrazteko; ondoren, nahasmen-prozesua ezagutzera ematen da, ipuinetan hain ohikoa den ekintza errepikapena erabiliz; azkenik, oreka (osasuna) berreskuratzeke pausoak erakusten dira. Kasu, hau ez da ipuin garaikideak gutxiesteko ariketa. Lanabes hauekin Añor-

gak eta Mitxelenak zer egin duten da aztertu beharrekoa.

Ilustrazioek orrialde guztiak betetzen dituzte, eta halere testuak daruma kontaketa zama; irudiek fokua hartzen dute ezinbestekoa zaienean soilik. Testua boz gora irakurtzeko aproposa da, kontaketa baten transkripzioa dirudi.

Protagonista zein gertakariak ulerterrazak dira, oinarritzko kontzeptuetan eraikiak.

Funtsean, irakurle hasiberrirentzako neurriko kontakizuna da. Letraz zein belarriz.



‘Txomin Txapel’

Idazlea: Pello Añorga. **Ilustratzailea:** Jokin Mitxelena. **Argitaletxea:** Elkar.

Bakoitza bere haizeak darabil

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Azal biguneko liburu etzuna da (23x23 cm), 32 orrialde dituen. Album ilustratua da.

Komikietakoa dei daitekeen ilustrazio mota erakusten du, sekuentziatorako joera duena.

Kontakizun tranpatia da, irakurlearen arreta Telmo izeneko protagonistarengan jartzeko ahalegin bete egiten duen bitartean, benetako gertakariak begien aurrean –baina isilka-agertzen dizkigulako. Egitura errepikapenezkoa da, aldiko familiakide bat jardunean erakusten duena Telmoren aitzakia-tan. Denak ariko dira, Telmo izan ezik, zeren Telmo guztien sintesia baita.

Testua telegrafikoa da, esaldi biluziekin, elkarren arteko juntadurarik gabe. Bere bizkar har-

tzen du kontakizuna egituratzea eta erritmoa ezartzea. Baina isilka bezala, kasik ematen du bere kezka nagusia irudiek agertuko dutenari bidea ematea dela.

Testuak egituratzen duen bezala kontakizuna, ilustrazioek ezinbesteko informazioa ematen dute pertsonaien karakterizazio eta ekintzen nolokotasunei buruz. Irudietan eskaintzen zaizkigu umore pasarteak, eta kontakizuna haragiztatzen duten gainerakoak. Arestian aipatutako *tranpa* ere, irudien bidez askatuko da.



‘Itsas haizea dabil’

Idazlea: Junkal Lerbundi. **Ilustratzailea:** Gaston. **Argitaletxea:** Ikaslekar.